

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Ceva Logistics, SL enpresaren hitzarmen kolektiboa

Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkarirena. Honen bidez ebazten da 2021-2022-2023 Ceva Logistics, SL enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01100721012017.

AURREKARIAK

2023ko urtarrilaren 2an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariek eta ordezkarik sozialek, 2022ko abenduaren 5ean sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari dagokio, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuko 14.1.g artikulua –Lan eta Enplegu Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko lan hitzarmen eta akordio kolektiboaren eta berdintasun planaren erregistroa eta enpresa Ceva Logistics, SL hitzarmen kolektiboa Arabako lurralde bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 13a

Arabako lurralde ordezkarria

MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE

**Vitoria-Gasteizko Mercedes Benz-en lantokiko Ceva Logistics
SL enpresaren hitzarmen kolektiboa (Araba)**

Hitzarmena adostu duten alderdien zehaztapena.

Batetik, Vitoria-Gasteizko (Araba) Mercedes Benzen lantokiko logistika-zerbitzuko Ceva Logistics SLko enpresa-batzordeak eta Ceva Logistics, SLren enpresaren zuzendaritzak sinatu dute hitzarmen hau.

1. artikulua. Lurralde-eremua

Ceva Logistics SL enpresaren lantokian ezarri ahalko dira hitzarmen honen xedapenak. Vitoria-Gasteizko Mercedes Benzen lantokian dago hori.

2. artikulua. Langile-eremua

Lantokia Vitoria-Gasteizko Mercedes Benzen duen Ceva Logistics SLko langileei eragiten die hitzarmen honek, Contract Manager eta HRBP euskarri-posizioak izan ezik.

3. artikulua. Funtzio-eremua

Hitzarmen honek Ceva Logistics SL enpresaren eta aurrez aipatutako lantokiko langileen lan-harremanak arautzen ditu.

4. artikulua. Hitzarmenaren indarraldia, iraupena eta amaieraren iragarpena

Hitzarmen honek 3 urte iraungo du (2021,2022 eta 2023).

Hitzarmen hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2023ko abenduaren 31ra arte luzatuko da eraginkortasuna. Dena den, hitzarmenaren ondorioek 2021eko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute.

Hitzarmen honen amaieraren iragarpena automatikoa izango da, hitzarmena amaitzen denean.

Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, berariaz adosten da hitzarmena denuntziatu eta hitzartutako iraunaldia amaitu ondoren ere hark indarrean jarraituko duela, harik eta alderdiek hitzarmen hau ordezkatzeko duen beste bat sinatzen duten arte.

5. artikulua. Hitzarmen honetan itundutako lan-baldintzak ez aplikatzea

Enpresak ezingo du Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan aipatutako prozeduraren bitartez hitzarmen hau aplikatu gabe utzi. Horren ordez, berriro negoziatzen saiatu beharko du, hitzarmena iraungi baino lehen beste hitzarmen bat lortzeko, edo indarrean dagoena berrikusteko, Langileen Estatutuaren 86.1 artikulua aurreikusitakoari jarraikiz.

Dena dela, desadostasunik baldin badago, bi aldeek berariaz adostu dute, PRECO lanbide-akordioaren adiskidetzeari eta bitartekaritza aplikatutako dela desadostasunok konpontzeko. Arbitraje-prozedura aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da alderdi biak erabaki horrekin ados egotea.

Sistema horietara jotzeko bi alderdien adostasuna beharko da, eta berariaz baztertzen da nahitaezko arbitrajea.

Enpresak hitzarmen kolektiboa aldi batean ez aplikatzea nahi izanez gero (arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla-eta), langileen ordezkariekin akordiorik lortzen ez badu, eta gatazkak konpontzeko prozeduretara jota ere desadostasun hori konpontzen ez bada, bi alderdien arteko akordioa beharko da (enpresaren ordezkari eta langileen ordezkariaren gehiengoa), hitzarmena ez aplikatzeari buruzko desadostasuna ORPRICCEren esku jartzeko.

6. artikulua. Batzorde paritariora

Batzorde paritario bat eratuko da, hitzarmenaren sinatzaileek osatua, eta une horretan dauden atal sindikalak adina kide izango ditu gehienez. Eta enpresako kideen proportzio bera.

Batzorde horretako alderdietako edozeinek deialdia eskatzen badu, batzordea hamabost eguneko gehieneko epean bildu beharko da, eta proposatutako gaiak hamar eguneko gehieneko epean konponduko dira.

Eskumen hauek izango ditu batzordeak:

- Hitzarmen kolektibo honetako edozein arau interpretatzea.
- Hitzarmen honetan hartutako konpromisoak garatzea.

Batzorde paritariora ordezkarietako edozeinen 1/3k eskatzen duen guztietan bilduko da, eman zaizkion eskumenak baliatuz.

Sindikatu-ordezkaritza bakoitzak, bai eta batzorde paritarioko enpresa-ordezkaritzak ere, gehienez bi aholkulariren laguntza eduki ahal izango du, hitza bai baina botorik izango ez dutenak.

Edozein kidek izan dezake ordezkoa, batzordeari alde aurretik jakinarazten badio.

Batzorde parekidearen erabakiek balioa izan dezaten, ordezkarietza bakoitzeko botoen ehuneko 51k berretsi behar ditu.

Batzorde Paritarioan sortzen diren desadostasunak, betiere, Lan Gatazkak Judizioz Kanpo Konpontzeari buruzko II. Akordioan arautzen den bitartekaritza-prozeduraren arabera ebatziko dira (PRECO II, 2000ko apirilaren 4ko EHAA). Bi aldeek hitzartu beharko dute sistema horien pean jartzea, eta berariaz baztertzeko da nahitaezko arbitrajea.

Batzorde paritarioko kide titularrek ordaindutako baimena hartzeko eskubidea izango dute batzordea biltzen den egunetan.

7. artikulua. Berme pertsonalak

Hitzarmen hau indarrean jartzean, bertan hitzartutakoa gainditzen duten egoerak errespetatuko dira, eta soldata-kontzeptu bat bera ere ezin izango da onuragarriagoa, konpentsagarriagoa edo xurgagarriagoa izango.

8. artikulua. Kontratazioa

Lantokiaren egiturazko plantilla behin betiko kontratuen bidez beteko da. Hau da, behin betiko kontratuen kopuruak bat egin beharko du laneko txanda guztien baturari dagokion lanpostuen kopuruarekin, Vitoria-Gasteizko Mercedes Benz lantoki osoan txanda bakoitzean behar diren lanpostuak barne.

Enpresa-batzordearen hileko bileretan lanpostu berrien eta kontratazioen berri emango da.

Izan daitezkeen absentziak behar bezala betetze aldera, egiturazko plantillatza joko da une oro txanda eta zona bakoitzaren ekoizpen-beharrizanen arabera ezarri den plantilla, eta bi langile gehiago jarriko dira txanda bakoitzeko unitate bakoitzean (muntaketa gordina eta azken muntaketa) .

Enpresako bitartekotasun-kontratuen bidez beteko dira honako arrazoi hauek direla-eta izaten diren absentziak: legezko zaintza, adinekoen zaintza eta nahitaezko eszedentziak, gaixotasun arruntagatiko bajak, haurdunaldi arriskutsuagatiko bajak, laneko istripuagatiko bajak eta amatasun- eta aitatasun-baimenak. Iraupen luzeko baimenak, iraupen luzeko lizentziak, egutegian ezarritako alditik kanpo hartutako oporrak eta behar besteko denborarekin abisatuta (zazpi egun natural) norberaren poltsatik hartutako egunak betetzeko, enpresaren produkzio-inguruabarrek eragindako behin-behineko kontratuak egingo dira. Kontratazio horiek egiteko, kontuan hartuko dira lan-poltsan sartutakoak, langile espezialistaren soldata-maila dutenak. Lan-poltsa hori aldi

baterako laneko enpresako (ABLE) langileek osatuko dute, eta Lan Harremanen Kontseiluarekin (PRECO A/26/2022) aurretiaz adostutako irizpideak ezarriko dira (antzinatasuna, balio-aniztasuna eta jarduera; hala ere, irizpideen hurrenkerak ez du zertan hori izan).

Lan-poltsa horretan automatikoki sartuko dira lantokian 30 egunez lan egin duten guztiak, eta finkatutako irizpideen arabera hurrenkera ezarriko da. Goian aipatutako irizpideei jarraikiz deituko zaie langile horiei. Justifikatutako arrazoirik eman gabe lan egiteko deiari bi aldiz erantzuten ez diotenak lan-poltsatik kanpo geratuko dira.

Aldi baterako laneko enpresak (ABLE) soilik kontratatuko dira enpresako langileekin ezin direnean bete inguruabar aurreikusiekin eta ezohikoak, absentziak eta iraupen laburreko bai-menak eta lizentziak, laneko istripuak eta gaixotasun arrunteko bajak (iraupen laburrekoak horiek ere).

9. artikulua. Ohiko lanaldia

Lanaldia eta lanegunak (atsedenaldiak barne hartuta) Vitoria-Gasteizko Mercedes Benzen muntaketa gordin eta azken muntaketa unitateetan lanaldi jarraitua duten langileenak bezalakoak izango dira; hau da, 1.712 ordu eta gehienez ere 214 lanegun.

Enpresako zuzendaritzak konpromisoa hartzen du langileen legezko ordezkariari ekitaldi bakoitzeko lan-egutegia emateko, ekitaldi bakoitzeko lan txandekin batera, urteko lehenengo bi hilabeteetan. Egutegia aldatu ahalko da, Vitoria-Gasteizko Mercedes Benzen programaren arabera.

Langileen Estatutuaren 34.2 artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako, lanaldiaren ehuneko 100 erregularri banatuko dela adostu da, eta ezin izango da banaketa irregularrik egin hitzarmen honetan espresuki xedatutakotik kanpo.

10. artikulua. Malgutasuna

Malgutasuna aplikatu ahalko da, baina Vitoria-Gasteizko Mercedes Benzeko ekoizpen programatik datozen aldaketengatik bakar-bakarrik, muntaketa gordin eta azken muntaketa unitate-sektoreei dagokienez, eta inola ere ez du ekarriko urteko lanaldia areagotzea.

Kontzeptua.

Egunen poltsa kolektiboaren kontzeptua sortu da, xede bakarra duena: Vitoria-Gasteizko Mercedes Benz lantokiko malgutasunean lan egitea. Poltsa hori -18/+5 lanegun gora edo behera ibil daiteke, hitzarmenean jasotako banakako lanaldiaren oinarriarekiko.

Ikur negatiboak zera esan du: zer egunetan ez den lanik egin, lantegian lanegun horiek eten direlako, gerta litezkeen enplegua erregulatzeko espedienteen ondorioak arintze aldera, bai plantilla adierazitako mugetaraino egoeraren arabera murriztu duelako (lanaldi horiek langileak zor dituen egunen kontuan sartuko dira). Saldo negatiboa hurrengo urtera eramango da.

Ikur positiboak, ordea, lan egindako gehiegizko lanegunak dira (zeinu positiboa). Lanegun horiek ere lantegiak gaituko ditu (lanegun horiek langileak hartzeko dituen egunen kontuan sartuko dira).

Saldoa +5ean badago, behar baino gehiago lan egiten diren egun guztiak (zeinu positiboa) ez dira egunen poltsa kolektiboaren kontuan gordeko; izan ere, aparteko produkzio-eguntzat hartuko dira nahitaez, eta norberaren egunen poltsan sartuko dira.

Artikulu honetan jasotako malgutasuna ez da aplikatuko larunbat arratsaldeetan, larunbat gauetan, igandeetan eta jaiegunetan egindako lanetan. Horiek 3. eranskinean jasotakoaren arabera arautuko dira.

Vitoria-Gasteizko Mercedes Benzeko langileentzat gaitu diren lanegunek bakarrik gaituko dituzte lanegun horiek, positiboan nahiz negatiboan izan, muntaketa gordinari eta azken muntaketari dagokienez, eta Vitoria-Gasteizko Mercedes Benzen gaitu diren eremu eta txandan lan

egiten duten Ceva Logistics SLko langileei eragingo die; edo Mercedes Benz bezeroak zerbitzu logistikoaren kontratu-esparruaren baitan Ceva Logistics SLri egiten dion eskaera zehatzagatik edo beharrianagatik.

Langilearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik lan-harremana amaitzen bada, langileak saldo negatiboa izanik, enpresak zorra xurgatuko du, eta ez ditu egun horiek kitapenetik des-kontatuko. Arrazoi horien artean nahitaezko eszedentzia egongo da.

Lanaldiak etetea:

Vitoria-Gasteizko Mercedes Benz gure bezeroak poltsa negatiboko lanegun bat aste barruan gaitzen baitu, bere langileei poltsa negatiboa ez gaitzeko ahalmena edukiko du enpresak, behar propioak estaltzeari begira. Horrela bada, 24 ordu lehenago jakinaraziko zaie hori eragindako langileei (lan horiek ahalik eta aldi baterako langile gehienekin egiteko konpromisoa hartzen du enpresak, kaltea balizko kitapena izateko aukera gutxitze aldera); eta, horrela ez bada, langile boluntarioekin egingo dira lanak.

Vitoria-Gasteizko Mercedes Benz gure bezeroak poltsa negatiboko lanegun bat aste barruan gaitzen baitu, baina gure ohiko lanarekin zerikusirik ez duten lanak eskatzen badizkio enpresari, bere langileei poltsa negatiboa ez gaitzeko ahalmena edukiko du enpresak, lan horiek estaltzeari begira. Horrela bada, eragindako langileen aurreko txanda amaitu aurretik jakinaraziko zaie hori eragindako langileei (lan horiek ahalik eta aldi baterako langile gehienekin egiteko konpromisoa hartzen du enpresak, kaltea balizko kitapena izateko aukera gutxitze aldera); eta, horrela ez bada, langile boluntarioekin egingo dira lanak.

Laneguna eteteagatik eragindako langileek -1 egun gehituko diote "egunen poltsa kolektiboan" duten kontuari.

Lanegunak gaitzea:

Vitoria-Gasteizko Mercedes Benz gure bezeroak pintura, muntaketa gordin eta azken muntaketa sektoreetarako lanegunak gaitzen baditu, lanegun hori langileen ehuneko 100 gaitzeko betebeharra edukiko du enpresak, Vitoria-Gasteizko Mercedes Benzek gaitu dituen txandan eta eremuan.

Hau izango da lanegun horiek gaitzeagatiko konpentsazioa:

- Laneguna astelehenetik ostiralera bitartera gaitzen bada, jaieguna izan gabe: egun 1 sortuko da gaitutako egun bakoitzeko. Sortu den +1 hori "egunen poltsa kolektibora" joango da, poltsa hori +5etik beherako balioan badago. Poltsa +5eko balioan badago, "egunen banakako poltsara" joango da sortutako laneguna.

- Laneguna larunbat goizean gaitzen bada: 2 egun sortuko dira gaitutako egun bakoitzeko. Sortu den +2 hori honela banatuko da:

- "Egunen poltsa kolektiboa" +5etik beherako balioan badago, sortu diren bi egunetako bat "egunen poltsa kolektibora" joango da, lanegun bat gehituz poltsa horretan. Sortu den beste lanegunarekin, berriz, eragindakoak erabakiko du 100 euro kobratu edo gozatzeko denbora gisa konpentsatzea nahi duen, "egunen banakako poltsara" gehituz lanegun hori.

- Egunen poltsa kolektiboa +5eko balioan baldin badago, sortu diren bi egunetako bat norberaren egunen poltsan sartuko da, lanegun bat gehituz poltsa horretan. Sortu den beste lanegunarekin, berriz, eragindakoak erabakiko du 100 euroren truke kobratu edo gozatzeko denbora gisa konpentsatzea nahi duen, norberaren egunen poltsara gehituz lanegun hori.

Gorabeheren tratamendua, malgutasuna ezarri den lanegunetan:

- Aldi baterako ezintasun arrunta, oporrak: horrelakoetan, ez da lanegunik kenduko edo gehituko ez "egunen poltsa kolektiboan", ez "egunen banakako poltsan". Gorabehera horiek etete-lanaldian edo gaikuntza-lanaldian gertatzen badira, ez da konpentsaziorik sortuko. Salbuespenez,

malgutasuna ezarri den egun batean lanean egonda langile batek lana utzi behar badu aldi baterako ezintasun arrunta gertatu delako, lan egindako lanegunari dagokion konpentsazioa jasoko du proportzionalki.

- Laneko aldi baterako ezintasunak, lizentziak, baimenak eta “egunen banakako poltsaren” gozamina: Horrelakoetan, etete-egunekin bat egiten badu gorabeherak, “egunen poltsa kolektibotik” ez zaio laneguna kenduko. Gaikuntza-egun batekin egiten badu bat gertakariak, dagokion kontuan gehituko zaio laneguna (“egunen poltsa kolektiboan” edo “egunen banakako poltsan”), eta ez da konpentsaziorik sortuko, ez abonuan, ez gozamenean. Salbuespenez, malgutasuna ezarri den egun batean lanean egonda langile batek lana utzi behar badu laneko aldi baterako ezintasuna gertatu delako, lanegun osoari dagokion konpentsazioa jasoko du.

Norberaren egunen poltsak baliatzeari buruzko antolaketa.

Langileak norberaren egunen poltsan sortu dituen egunez baliatu ahaliko du, lanaldi osoetan edo lanaldi erdietan. Egundun berean eguna hartu ahal izango duten langileen kopurua honako hau izango da: txanda eta zona bakoitzeko lau pertsonakoa, baldin eta langile espezialistaren soldata-maila badute; txanda eta zona bakoitzeko pertsona batekoa, langilezainaren soldata-maila baldin badute, eta txanda eta zona bakoitzeko pertsona batekoa txandako buruaren soldata-maila baldin badute.

Langile batek bere poltsako atsedeen-denbora guztia edo zati bat baliatu nahi badu, horretarako eskaera bete bidali beharko dio enpresari, zazpi egun lehenago gutxienez. Enpresak gehienez 24 orduko epean erantzun dio eskaera horri. Enpresak ezezkoa eman ahaliko du, bakar-bakarrik, txandan, baliatze-egunean eta sektorean beste pertsona batzuekin bat egiten badu, aurreko paragrafoan adierazitako mugaketei dagokienez. Ezezko hori arrazoituko zaio eskatzaileari erantzunean. Langileek informazio hori ezagutzeko eskubidea edukiko dute beti. Beste alde batetik, enpresak txanda, sektore eta egun bakoitzeko mugak gainditu ahal izango ditu beharrezkotzat jotzen duen guztietan.

Bederatzigarren ordua.

Era berean, malgutasun-tresna gisara, astelehenetik ostiralera, goizeko txandan nahiz arratsaldekoan, 9 ordu arte zabalduko ahaliko da laneguna. Vitoria-Gasteizko Mercedes Benzek bere langileei zabalpen hori egiten dienean bakarrik ezarri ahaliko da malgutasun hori, muntaketa gordin, pintura edota azken muntaketa sektoreei dagokienez. Aldaketa horrek eragindako txandari eta sektoreari dagozkien langileen ehuneko 100 deitu beharko ditu enpresak.

Bederatzigarren ordu bakoitzeko, bi orduko konpentsazioa sortuko da. Gozamen-modalitatean sartuko dira “egunen banakako poltsara”, eta “egunen banakako poltsaren gozamina” artikulua gidatuko du ordu horien gozamina.

Bederatzigarren ordua gaueko ordutegiaren barruan egiten bada, gau-plusa ordainduko da.

11. artikulua. Oporrak

Lan-egutegiaren bidez finkatuko dira oporrak baliatzeko egunak, eta Vitoria-Gasteizko Mercedes enpresaren lan-egutegiak finkatuko ditu oporrak. Cevako langileen oporraldiek bat egingo dute Vitoria-Gasteizko Mercedes lantegiko oporraldiekin eta lan eremuekin eta 21 laneguneko oporraldia ezarriko da.

Egutegian finkatu den oporraldia bat egiten badu kontratuaren etenaldiarekin edo aldi baterako ezintasunekin (laneko edo ohiko gertakariengatik, haurdunaldiarengatik, erditzeagatik, amatasunagatik, aitatasunagatik edo edoskitzaroagatik), eta, horren ondorioz, langileak ezin badu opor guztiez edo horien zati batez gozatu, enpresako zuzendaritzaren eta langilearen artean hitzartzen diren datetan gozatu ahaliko da oporraldiaz.

Oporrak beti beteko dira enpresaren produkzio-inguruabarrek eragindako behin-behineko kontratuen bidez, baldin eta lan-egutegian ezarritakotik kanpo hartzen badira edo langilea gaixotasun arruntagatiko edo lan-istripuagatiko bajaren iraupen luzeko bajatik laneratzen bada.

Oporren ordainsariak kalkulatzeko, Arabako Salgaien Garraiorako Hitzarmen Kolektiboaren 14. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

12. artikulua. Soldaten ordainketa eta banakapena

Sei soldata-maila ezartzen dira:

- Operazioburua.
- Txandako burua.
- Langilezaina.
- Langile espezializatua.
- Administraria. Soldata-maila hori enpresa-proiektuari atxikitako pertsonari dagokie.
- Teknikari laguntzailea. Soldata-maila hori borondatezko eszedentzia hartu duen pertsonari dagokio. Lanera itzultzeko aldia amaitu arte eutsiko zaio, indarrean dagoen legediaren arabera.

Honela banatuko da urteko soldata gordina:

- Ohiko 12 hilabetetan banatuko da, eta hilabete amaieran abonatuko da.
- Aparteko hiru ordainsari egongo dira, eta martxoaren, ekainaren eta abenduaren erdialdean ordainduko direnak, aparteko ordainsariak hainbanatuta ez badaude.

Aparteko ordainsariak hainbanatu ahal izango dira. (bat, bi edo hirurak); beti ere, langileak hala eskatzen badu. Horrelakoetan, urte berriko urtarrilean aldatuko da abonu-sistema.

Hitzarmen honetan itundutako aparteko ordainsariak jasotzearen ondorioetarako, lanean emandako denboratzat joko dira aldi baterako ezintasun-aldiak.

Soldata-egitura:

Oinarrizko soldata: kontzeptu horren pean, ohiko hamabi hilabeteen guztizkoa ordainduko da, erantsitako soldata-tauletan soldata-maila bakoitzerako ezarri den zenbatekoan. (1.eranskina).

Antzinasuna: antzinasun gisa abonatuko da urteko soldata oinarrizkoaren ehuneko 5 (ikus erantsitako taulak), lanean egindako bosturteko bakoitzarengatik, ABLEen bidez egindako lana barne hartuta, egon bada, taula honen arabera:

5 urte, ehuneko 5.

10 urte, ehuneko 10.

15 urte, ehuneko 15.

20 urte, ehuneko 20.

25 urte, ehuneko 25.

30 urte, ehuneko 30.

35 urte, ehuneko 35.

Aparteko ordainsariak: hitzarmen honetan aparteko hiru ordainsari ezartzen dira, martxoan, ekainean eta abenduan; soldata-maila bakoitzerako zehaztutako zenbatekoak izango dira, antzinasunaren kontzeptua gehituta. Zenbateko hori ez da aldatuko aldi baterako ezintasunen kasuan.

Gaueko lanaren plusa: gaueko lanaren osagarri bat ezarri da, II. eranskinean jasotako soldata-mailen kopuruekin bat datorrena. Osagarri hori 22:00etatik 06:00etara bitartean lan egingako gaueko orduen proportzioan ordainduko da, zortzi orduko lanaldi arruntaren gainean (proportzionalki, lanaldi txikiagoetan), eta honako eskala hau izango du urteko.

2021	2 ordu
2022	4 ordu
2023	8 ordu

13. artikulua. Soldata-igoera eta -eguneratzea

ALHAOn noiz argitaratzen den gorabehera, erantsi diren soldata-tauletan urte eta soldata-maila bakoitzerako finkatu diren soldata-igoerak aplikatuko dira; beraz, abonua 2021eko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina edukiko du. 2021-2022 urteetan sortutako atzerapenak hitzarmen hau sinatzean ordainduko dira, atzerapenen nomina bakarrean.

2021. urtea	ehuneko 4,5
2022. urtea	ehuneko 7,10
2023. urtea	ehuneko 8,00

14. artikulua. Aldi baterako ohiko ezintasun edo laneko ezintasun kasuetarako prestazio osagarria

Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako aldi baterako ezintasunaren kasuetan, enpresak benetako soldataren ehuneko 100 berrmatuko dio langileari, bajaren lehenengo egunetik beretik hasita eta baja amaitzen den arte.

Gaixotasun arruntak edo lanetik kanpoko istripuak eragindako aldi baterako ezintasunaren kasuetan, Arabako Salgaien Garraioaren hitzarmena ezarriko da. Urte naturala amaitzean behin bakarrik egon bada egoera horretan (birgaixotzeak baja bera dira), enpresak benetako soldataren ehuneko 100 berrmatuko dio langileari, eta hurrengo urteko urtarrilean erregulatuko da.

Urteko bajen kopurua zenbatzeko orduan, baja hasi den data (hilabetea eta eguna) hartuko da erreferentziatzat.

15. artikulua. Lizentziak eta baimenak

Arabako Salgaien Garraioaren hitzarmenean eta Langileen Estatutuan jasotzen diren lizentziek eta baimenez gain, hobekuntza hauek sartzen dira enpresaren hitzarmenera, lizentzien eta baimenen inguruan:

– Aldez aurretik enpresari eskaera eginda, langileak urtean ordaindutako 15 ordu izango ditu 15 urteko edo gehiagoko seme-alaba naturalei edo adoptatuei, gurasoei, aita-amaginarrebei eta ezkontideari Gizarte Segurantzako osasun-zentro publikoetako medikuen kontsultara laguntzeko, kontsulta langilearen lanaldiarekin bat datorrenean, betiere. Ondoren, justifikatu egin beharko du eta egiaztatzea jasota egon beharko dute hitzorduak eta kontsultatik ateratako orduak.

– Aldez aurretik enpresari eskaera eginda, langileak behar dituen ordu guztiak edukiko ditu ordainduta 14 urteko edo gutxiagoko seme-alaba naturalei edo adoptatuei Gizarte Segurantzako osasun-zentro publikoetako medikuen kontsultara laguntzeko, horretarako ezinbestekoa den denboran, kontsulta langilearen lanaldiarekin bat datorrenean, betiere. Ondoren, justifikatu egin beharko du eta egiaztatzea jasota egon beharko du hitzorduak eta kontsultatik ateratako orduak.

– Ezkontideak, gurasoak, aita-amaginarrebak edo seme-alabak ospitaleratuta geratzen diren kasuetan, langileek aldez aurretik abisatuta eta ondoren dokumentu bidez behar bezala justifikatuta 3 lanegun jarraian edo txandaka (aukeran) izango dituzte eta ospitaleratzearen hasieran nahiz horrek iraun artean erabili ahal izango dituzte. Txandakako egunak aukeratuz gero, hartutako egun bakoitzean baimena eragin duen kausa justifikatuko da.

– Bederatzi hilabete baino gutxiagoko seme-alabaren edoskitzeagatik, emakumezko langileek amatasun-baimenari 15 lanegun jarraian gehitzeko eskubidea dute, baimena amaitzean; kasu horretan, amatasunagatikokojaren segidan hartuko da, oso-osorik. Biek lan egiten badute, amak edo aitak hartu ahal izango du baimen hori. Hemen araututako edoskitzeko ordu-pilaketa baliatu ondoren eszedentzia eskatzen bada, eta eskatzailea ez bada benetan lanera bueltatzen bularreko haurrak ordu-pilaketarako erreferentetzat hartu den adina bete arte, deskontatu egingo zaio behar ez bezala pilatutako lanaldi-murrizketa.

– Seme-alabak zaintzeko eszedentzia: Langileen Estatutuaren 46.3. artikuluan, hiru urtekoa da seme-alabak zaintzeko eszedentziaren gehieneko iraupena, eta haurra jaiotzen denetik edo, harrera-kasuetan, ebazpen judizial edo administratiboa ematen denetik zenbatzen hasita. Bada, beste urtebete emango zaio eszedentzia horri, eta, hortaz, arrazoi horrengatik eszedentziak ez ditu 4 urteak gaindituko.

16. artikulua. Prestakuntza

Lan-orduetatik kanpo egiten den prestakuntza borondatezkoa izango da, laneko osasunaren inguruko prestakuntza denean izan ezik. Ahal dela, eragindakoen lanaldiaren barruan emango da hori. Horrela egin ezean eta lanalditik kanpo egiten bada, 1,25 orduko konpentsazioa egongo da egindako ordu bakoitzarengatik, eta konpentsazioa zuzenean sartuko da “egunen banakako poltsara”. Era berean, prestakuntza horrek ez dio inolako kosturik ekarriko langileari.

17. artikulua. Fisioterapeuta

Lantokiko langileak artatzeko fisioterapia-zerbitzu bat eskainiko da 30 minutuko saioetan eta lan-ordutegitik kanpo.

Langilea ez bada alde zuzenetik esleitutako saiora joaten eta ez badu bi lanegun lehenago horren berri eman, saio hori berresleitzeko, lehentasun-ordena saltatuko da urteko txandaketan.

18. artikulua. Zuzenbide osagarria

Hitzarmen honetan aurreikusten ez den guztirako, Errepideko Salgaien Garraioako Enpresetarako Akordio Orokorrean, Arabako Errepideko Salgaien Garraioaren eta Garraio Agentzien Sektoreko hitzarmen kolektibo probintzian eta Langileen Estatutuan xedatutakoa aplikatuko da.

19. artikulua. Uniformeak

Enpresak laneko arropa emango die langileei martxoaren 21a eta irailaren 30a baino lehen. Araututa geratzen da langile bakoitzaren uniformea hau izango dela:

UDAN	NEGUAN
2 kamiseta	Jaka bat, txaleko bilakatu daitekeena (bi urterik behin).
2 galtzamotz (azken muntaketako unitatea)	Jantzi polarra
2 galtza luze (muntaketa gordineko unitatea)	2 kamiseta termiko
Landa-lanak egiteko, polar 1	2 galtza luze
	Oinetakoak
	2 polo
	Landa-lanak egiteko, bota iragazgaitzak eta 3 kamiseta termiko emango dira.
Margotze-lanak egiteko eremuan, gaur egun entregatzen den ekipamendua entregatuko da.	

Nola kudeatu laneko arropa:

Lanean diharduten pertsonen dagokienez: enpresak zenbait bitarteko baliatuko ditu (e-mailak, FOR, txanda-bilerak eta iragarki-oholak) arropa-eskaerak (inprimakiak) jasoko direla jakinarazteko, eta zazpi egun naturaleko epea emango du txanda bakoitzeko langilezainari dokumentu hori entregatzeko. Zazpi egun horietan langilea ez bada lanera etorri, epe hori beste zazpi egunez luzatuko da langilea lanera etortzen den egunetik aurrera edo dokumentua e-mailez bidatzeko aukera emango zaio.

Arropa kudeatzeko prozesua garatzen ari den bitartean gaixotasun arruntagatik edo laneko istripuagatik bajaran dauden langileen kasuan, enpresak mezu elektronikoko bidez eskatuko die dokumentua bete eta bidal dezatela, eta langileak erantzuna bide beretik bidali beharko du zazpi egun naturaleko epean. Egoera pertsonalak (ospitaleratzeak) kontuan hartuko dira.

I. eranskina

Soldata-etaulak 2021. urtea

KATEGORIA	HILEKO OINARRIZKO SOLDATA	APARTEKO ORDAINSARIAK (3)	URTEKO SOLDATA GORDINA
Laguntzaile espezialista	1.556,36 euro	1.556,36 euro	23.345,40 euro
Langileburua	1.685,03 euro	1.685,03 euro	25.275,42 euro
Administraria	0,00 euro	0,00 euro	
Txandako burua	1.846,95 euro	1.846,95 euro	27.704,20 euro
Eragiketen arduraduna	2.229,33 euro	2.229,33 euro	33.440,00 euro
Laguntzaile teknikoa	1.573,91 euro	1.573,91 euro	23.608,62 euro

Ordainsarien hainbanaketa

KATEGORIA	ORDAINSARI BAT	HIRU ORDAINSARI
Laguntzaile espezialista	129,70 euro	389,09 euro
Langileburua	140,42 euro	421,26 euro
Administraria	0,00 euro	0,00 euro
Txandako burua	153,91 euro	461,74 euro
Eragiketen arduraduna	185,78 euro	557,33 euro
Laguntzaile teknikoa	131,16 euro	393,48 euro

2022. urtea

KATEGORIA	HILEKO OINARRIZKO SOLDATA	APARTEKO ORDAINSARIAK (3)	URTEKO SOLDATA GORDINA
Laguntzaile espezialista	1.666,85 euro	1.666,85 euro	25.002,82 euro
Langileburua	1.804,66 euro	1.804,66 euro	27.069,97 euro
Administraria	1.600,00 euro	1.600,00 euro	24.000,00 euro
Txandako burua	1.978,08 euro	1.978,08 euro	29.671,20 euro
Eragiketen arduraduna	2.387,60 euro	2.387,60 euro	35.814,00 euro
Laguntzaile teknikoa	1.685,66 euro	1.685,66 euro	25.284,83 euro

Ordainsarien hainbanaketa

KATEGORIA	ORDAINSARI BAT	HIRU ORDAINSARI
Laguntzaile espezialista	138,90 euro	416,71 euro
Langileburua	150,39 euro	451,17 euro
Administraria	133,33 euro	400,00 euro
Txandako burua	164,84 euro	494,52 euro
Eragiketen arduraduna	198,97 euro	596,90 euro
Laguntzaile teknikoa	140,47 euro	421,41 euro

2023. urtea

KATEGORIA	HILEKO OINARRIZKO SOLDATA	APARTEKO ORDAINSARIAK (3)	URTEKO SOLDATA GORDINA
Laguntzaile espezialista	1.800,20 euro	1.800,20 euro	27.003,04 euro
Langileburua	1.949,04 euro	1.949,04 euro	29.235,57 euro
Administraria	1.728,00 euro	1.728,00 euro	25.920,00 euro
Txandako burua	2.136,33 euro	2.136,33 euro	32.044,89 euro
Eragiketen arduraduna	2.578,60 euro	2.578,60 euro	38.679,00 euro
Laguntzaile teknikoa	1.820,51 euro	1.820,51 euro	27.307,62 euro

Ordainsarien hainbanaketa

KATEGORIA	ORDAINSARI BAT	HIRU ORDAINSARI
Laguntzaile espezialista	150,02 euro	450,05 euro
Langileburua	162,42 euro	487,26 euro
Administraria	144,00 euro	432,00 euro
Txandako burua	178,03 euro	534,08 euro
Eragiketen arduraduna	214,88 euro	644,65 euro
Laguntzaile teknikoa	151,71 euro	455,13 euro

II. eranskina

Gaueko plusa

SOLDATA MAILA	PREZIOA ORDUKO	2021	2022	2023
Laguntzaile espezialista	3,26	2 ordu	4 ordu	8 ordu
Langileburua	3,53	2 ordu	4 ordu	8 ordu
Txandako burua	3,53	2 ordu	4 ordu	8 ordu

III. eranskina

Lanaldien konpentsazioa

Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea (AEEE)	1 egun norberaren poltsara eta poltsa kolektibora, ondoriozik gabe	
Larunbatetan, ehuneko ehun	1 egun norberaren poltsara eta beste bat poltsa kolektibora	Aukeran
	1 egun poltsa kolektibora + 100 euro	
Ehuneko ehunera lan egin ez den larunbatetan	2 egun norberaren poltsara	Aukeran
	1 egun norberaren poltsara + 100 euro	
Ilgandeak/jaiegunak edo larunbatak, 14:00etatik aurrera	2 egun norberaren poltsara + 50 euro	Aukeran
	1 egun norberaren poltsara + 150 euro	
Aktibo bihur daitezkeen egunak, urdinez inguratuta (AI-Or)	1 egun norberaren poltsara	
Egutegian urdinez inguratutako egunak AI-Or, lantegia geldialdian	1 egun norberaren poltsara	
Poltsaren kargura, plantillaren % 100 ez	1 egun poltsa kolektibora	